Gobierno de Navarra
Departamento de Educación
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Servicio de Inspección Educativa
Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua
Santo Domingo, 8
31001 PAMPLONA/IRUÑA
Tel. 848 42 65 42 - 90
sie/hiz@navarra.es

IKASLEENTZAKO INFORMAZIO-OHARRA

PROBAK EKAINAREN 18AN (OSTEGUNA) EGINEN DIRA, IRUÑEKO BASOKO BHI-N.

Izangaiak Basoko BHI-n aurkeztuko dira **16:00an** NAN-a (jatorrizkoa, ez da ez fotokopiarik ez argazkirik onartuko) eta boligrafoa aldean dituztela. Kalkulagailua erabil daiteke (ez programagarria).

1. PLIKAK

Pliken sistema erabiltzen da izangaien anonimatua bermatzeko. Izangai bakoitzari identifikazio zenbaki bat esleituko zaio. Azterketetako orri guztien goiko aldeko eskuinaldean aipatu identifikazio zenbakia ezarri beharko dute ikasleek.

Era berean, ariketa bakoitzeko orriak beheko erdiko aldean zenbakitu beharko dira, orrialdearen zenbakia eta orrialdearen guztizkoa adierazita. Adibidea: 1/3; 2/3; 3/3.

2. EGIN BEHARREKO PROBAK

Lehen zatia (bi ordu, 16:15etik 18:15era)

- Izaera linguistiko edo izaera historikoa duen testu baten iruzkina (izen ematean aukeratutakoa).
- Ikaslea ikasi duen atzerriko lehen hizkuntzan idatzitako testu baten iruzkina eta testuari buruzko kultur, literatura edo gramatikako galderei erantzutea.

Atsedenaldia.

Bigarren zatia (ordu bat, 18:45etik 19:45 era)

Izena ematean aukeratutako enborreko irakasgaiari buruz gai bat garatzea, galdera batzuei erantzutea eta ariketa praktikoak egitea, honako honi jarraikiz:

1. *Arteak modalitatea:*

a) Arte Plastikoak, Irudia eta Diseinua bidea: Marrazketa Artistikoa II

b) Musika eta Arte Eszenikoak bidea: Musika Analisia II edo Arte Eszenikoak II

2. *Zientzien eta Teknologiaren modalitatea*:

a) Matematika II

b) Giza eta Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II

3. *Giza eta Gizarte Zientziak modalitatea*:

a) Latina II

Servicio de Inspección Educativa
Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua
Santo Domingo, 8
31001 PAMPLONA/IRUÑA
Tel. 848 42 65 42 - 90
sie/hiz@navarra.es

b) Gizarte Zientziei aplikatutako Matematika II

4. *Modalitate Orokorra*:

a) Zientzia orokorrak

3. ERREKLAMAZIOAK

Kalifikazioak web orrian (https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/premios-extraordinarios-de-bachillerato) argitaratuko dira ekainaren 24tik aurrera. Azterturiko izengaiek, haien gurasoek edo legezko ordezkariek lortutako azken kalifikazioaren aurka idatziz erreklamatu ahal izango dute. Horretarako, eskabidea epaimahaiko buruari igorriko diote bi egun balioduneko epean, kalifikazioak lehen aipatu web orrian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, azken emaitzak toki berean jarriko dira ikusgai.

4.- INSTALAZIOETARAKO SARBIDEA

Institutura honela sartuko da:

- Ikastetxeko patioan zerrendak jarriko dira. Zerrenda horietan probak zein ikasgeletan egin behar dituzten adieraziko zaie izagaiei.

- Ondoren froga egin behar duten gelaren zenbakia dagoen patioko gunera joan beharko dute.

- Deialdia gela berean froga egin behar duen talde osoari eginen zaio.

- 16:00an epaimahaiko kideak ikastetxera sartzeko atean jarriko dira, izangaiei ikasgela bakoitzera laguntzeko.

Ikasleek NAN-a eraman beharko dute. (Jatorrizkoa, ez da ez fotokopiarik ez argazkirik onartuko).

Probak egin aurretik ez da banakako deialdirik eginen. Identifikazioa epaimahaiko kideek ikasgelan bertan baieztatuko dute. Horretarako izangaiek NAN-a mahai gainean utzi beharko dutelarik.

Gelatik ateratzea eta komunak erabiltzea

Servicio de Inspección Educativa
Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua
Santo Domingo, 8
31001 PAMPLONA/IRUÑA
Tel. 848 42 65 42 - 90
sie/hiz@navarra.es

Probak kontrolatzen dituzten epaimahaikideek probak bukatu dituzten izangaiei banan-banan irteera emanen diete.

Ikasleek ordu erdiko atsedeladia edukiko dute bi zatien artean. Denbora tarte horretan ikastetxetik ateratzen ahalko dira. 20 minutu igaro eta gero, berriz ere froga egin behar duten gelaren zenbakia dagoen patioko aldera joan beharko dute epaimahaiko kide batek bigarren deialdia egin baino lehen. Ondoren arduradunek eraikineko sarbidea emanen diete probaren bigarren zatia egiteko.